

## MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure proiektuaren xede nagusia familiak dira, hauek bere osotasunean kontutan hartuta. Lehenik eta behin Durangaldeko udaletxe desberdinei aurkeztuko diegu gure proiektua, herri horretako baliabideez baliatuz bertako herritarrei eskeinitakoa izango dena. Gure helburua, udaletxeek gure enpresa kontratatuz bertako herritarrak azken bezeroak izatea da.

Gure eskaintzak tailer, jolas, hitzaldi, tertuliak zein formakuntza anitza izanik, bezeroak ere hala izatea espero dugu, ekintzaren arabera perfilak desberdinak izan daitezkeelarik. Familia osoez gain, gurasoak, zein etorkizuneko guraso, hezitzaile edota hezkuntzan interesa duen edonor izan daiteke gure proiektuko partaide.

Argi dugu gure proiektuan bertako bezero eta partaideekin **elkarreraginean** lan egin nahi dugula, hortaz, gure printzipio eta oinarriekin bat etorri beharko lirateke hauek.

Hasteko, gure komunikatzeko tresna **euskara** izango da eta alde honetatik euskal kultura sustatzea gure helburuetako bat izango da. Horrez gain, beste hainbat printzipio eta baloreri ere garrantzia ematen diegu:

- Natura errespetatu eta honetaz baliatu
- Aniztasuna sustatu
- Familiaren batasuna
- Heziketa kontzientea
- Hurrei hitza ematea
- Bizikidetzaz esperientzia elkartrukea
- Bizitza osasungarria
- Kalitatezko momentuak
- Durangaldea eta honek dituen baliabideez baliatu
- Kanpo espazioen aprobetxamendua
- ...

Gaur egun gure inguruan ezaugarri hauek biltzen dituzten eskaintzen gabezia nabaria da, beraz, guzti honen alde egin edota interesa duen ororengana jotzea da gure xedea hutsune hau betetzeko asmoz. Guztion artean elkar aberastu eta **inklusibotasuna** oinarritzat hartuta herri desberdinetako **bezero anitzak** izatea da gure nahia.